



PABLO S. QUIZA

**Lou Reeden
arrakasta**

Eserleku bakar bat ere ez zen hutsik geratu Lou Reed kantariak atzo Donostiako Kursalaren eman zuen kontzertuan. New Yorkeko musikari ospetsuak *Ecstasy* disko berriko kantuak eskaini zituen nagusiki, oso txalotuak izan ziren aspaldiko zenbait klasikorekin tartekaturik. Bi ordu inguruko kontzertua eskaini zuen Lou Reedek, eta gustura utzi zituen zaletuak Donostiara egindako bigarren bisitan.

Zea Mays, eklektikotasunaren erdibidean

Atzo aurkeztu zen taldearen bigarren lana, Gor disketxearen eskutik

Joseba Arruti / Bilbo

Zea Mays taldeak bere azken diskoa aurkeztu zuen atzo eguerdian Bilboko Kafe Antzokian. 'Elektrizitatea' lelo-pekoko disko eklektikoa hamalau abestiz osatua dator eta Zea Maysekoek plazaratutako bigarrena da. Gor etxea izan da ekoizpenaren arduraduna.

«DISKOA dentsoa da, behar bezala gozatzeko behin baino gehiagotan entzun behar den horietakoa», esan zuten Zea Mays taldeko kideek *Elektrizitatea* diskoaren aurkezpenan atzo. Aiora Renteria ahots nagusia, Asier Basabe

bateria, Ruben Gonzalez baxua eta gitarra akustikoa eta Iñaki Imaz gitarraren bigarren diskoa da atzo Bilboko Kafe Antzokian aurkeztutakoa. 1997an Euskadi Gaztea maketa sariketa irabazi zuten eta hurrengo



XOUSE SIMAL

Zea Mays taldeko kideak atzo Bilbon.

urteko azaroan kaleratu zuten lehen lana.

Zea Maysen diskoan hamalau abesti bildu dituzte, orotara 72 minutu pasatxoko iraupena du, eta abesti gehienak bostetik gora

luzatzen dira. Urdulizko Tio Pete estudioetan grabatu dute. Abestietako bi ezagunak ziren aurretik. Iazko ekainean *Ez nau beldurtzen* izenekoa *Aurtenko Gorakada III* bilduman azaldu zen; eta

oraintsu, aldiz, *Bidea* izenekoa single gisa plazaratu zen. Taldekideek azaldu zuten, «diskoaren lehen zatia zuzenagoa eta indartsuagoa da, eta bigarrena intimistagoa. Hori dela eta, gustu ezberdinak asetzeko aproposa izango delakoan gaude».

Diskoari egindako konponketak ere nabarmendu zituzten Zea Maysekoek. «Asko zaindu ditugu konponketak, eta ordenagailu bitartez egindakoak dira batik bat. Gainera, bi abestitan txeloa sartu dugu».

Zea Mays taldeak atzerriko talde aski ezagunen 15 bat bertsio landu ditu, eta horiek aurkezten dituenean El 7º armario taldea bihurtzen da. Atzo azaldu zuten, «nortasun bikoitz hori ondo etorri zaigu trebetasuna hartzeko».

**EUSKARAZKO HEDABIDE batek
ondoko lanpostua bete behar du:
Dokumentalista (25 erref.).**

ESKATZEN DA:

- ✓ Dokumentazio zerbitzuan, argazki eta testuen datu baseen osaketa eta kudeaketa menperatzea.
- ✓ Euskaletza ezagutzea.
- ✓ Euskaraz ondo jakitea.
- ✓ Ingelesa.

KONTUAN IZANGO DA: Antzeko lanetan jarduna izatea.

Interesdunek kurikulumak, argazkia eta harremanetarako telefonoa bidali maiatzaren 1a baino lehenago helbide honetara:

**1987 posta-kutxa
DONOSTIA**

Kartazalean lanpostuari dagokion erreferentzi zenbakia zehaztu.
Aukeraturakoei soilik erantzun zaie.



**Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua**

IRAKASLEENDAKO IKASTARO TRINKOAK EUSKARAZKO BIRTZIKLAPENA EGITEKO

Irakasleen Euskarazko Prestakuntzarako Planaren XX. Deialdia, 2000-2001 ikasturtea. Irakasleendako ikastaro trinkoak Euskarazko Birtziklapena egiteko, lanetik erabat liberaturik.

Hekuntza eta Kultura Departamentuko Euskara Zerbitzuak ezagutzera ematen du irakasleen euskarazko birtziklapenean parte hartzeko izena emateko epea zabaldu dela.

Eskaerak: maiatzaren 5a arte: Eskaera-orria (eredu ofiziala erabili behar da) Hezkuntza eta Kultura Departamentuko Erregistroan aurkeztuko da.

Informazio gehiago: Ikastetxe guztietara igorri da deialdi osoa. Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiaren web orrian (www.pnte.cfnavarra.es). 948/42.65.87 eta 948/42.65.88 telefonoetan.